

Alde batetik, webgune bat egitea erabaki dugu. Bertan oinarrizko informazioa jarriko dugu, menua eta dauzkagun errekreazioak, adibidez. Baita ere, gmail-a eta telefonoa jarriko dugu harremanetan jarri nahi badute bezeroek.

Beste aldetik, sare sozialetan ere jardungo dugu, Instagram eta Facebook, hain zuzen ere. Honen bidez, pentsatu dugu errazago izango dela besteengana urbiltzea, izan ere, gaur egun gehien erabiltzen den informazio iturrietako bat dira aplikazio hauek eta jende gazte askok duenez, hauek erakartzeko aukera ona dela uste dugu.